

PUTZUZARREKO TRIKUHARRIAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOA

M. Ceberio - J. Tapia
(ARANZADI Zientzia Elkarte, Historiaurreko Arkeologia Saila)



Monumentuaren hasierako egoera.

Monumentuaren aurkikuntza eta ezaugarriak

2014ko apirilean, Lontxo Ugartek Akola izeneko baserriaren ondoan trikuharri bat zegoela esan zuen. Luis Millanen abisua jaso ondoren, gerturatu ginen, eta egituraren ezaugarriak ikusita megalito berri bat zela pentsatu genuen, Akolako Lepua II-ren antza zeukana. Putzuzarren aurkitzen den egiturak ezaugarri berezi batzuk zituen, harri txikiz egindako pasabide moduko bat zeukala zirudien. Hala eta guztiz ere, identifikazio hori eta monumentuaren ezaugarriak baieztatu behar ziren, egitura ondo babesteko.

Horregatik 2018an, 2010etik gure zuzendaritzapean egiten den Txoritokieta eta Igoin-Akola Estazio Megalitikoaren ikerketa proiektuaren barruan, proposamen bat aurkeztu genuen egituraren ezaugarriak ezagutzeko.

L. Ugartek aurkitutako egitura hau diametroan 10 m eta altueran 0,40 m-ko tumulua duen trikuharri bat da. Hegoaldeko erdia suntsituta dago harriak erauziak izan direlako. Erdialdean, hil-ganbararen ipar-mendebaldeko erpina osatzen duten zenbait harlauza ikus daitezke. Iparraldeko harlauzak 2,5

m-ko luzera, 0,8 m-ko garaiera eta 0,4 m-ko zabale-
ra dauka, eta 120º- tara norabideratua dago. Mende-
baldekoak berriz, aurrekoarekin angelu bat osatzen
du, eta, ikus daitekeenaren arabera, 0,55 metro ditu
luzeran, 0,25 m garaieran eta 0,1 m zabaleran. Badi-
ra, gainera, tamaina txikiagoko harriak, ipar harlau-
zaren ekialderantz lerrotatzen direnak, eta haren ja-
rraipena izan daitezkeenak. Egituraren eraikuntzan
erabilitako materialak bertako hareharriak dira.

Monumentuaren ikerketa arkeologikoa

Esan dugun bezala, gure proiektuak trikuharriaren
ezaugarriak zehaztea zuen helburu eta ikerketa hori
aurrera eramateko Hernaniko Udalak laguntza eko-
nomiko bat ematea adostu zuen.

Nahiz eta, gure ustez, trikuharriaren identifikazioa
positiboa izan, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu
teknikoek ez zuten hain argi ikusten eta aurreikusi-
tako indusketa arkeologikoa egin baino lehen egitu-
raren jatorria ziurtatu behar zela agindu zuten.

Horregatik, 2018ko lanetan egitura osoko gainaza-
la garbitu genuen trikuharriaren oinplanoa bere
zabalera osoan ikusteko. Lan horri esker tumulua
uste genuena baino zabalagoa zela ikusi genuen,
10 metroko zabalera baino gehiago baitauka. Hain
zuzen ere, hego-ekialdean gainazala kentzean, egitu-
ra suntsituta egotea espero genuen aldean, tumulua
zabaltzen dela ikusi genuen.



2018an egindako garbiketa lanak.

Proiektuaren metodologia jarraituz, indusitako lur
guztiak bahetu genituen eta, lan hauek egitean, su-
harrizko bi pieza landuta aurkitu genituen: printza
bat eta xafra zati bat.

Lortutako emaitzak ikusita, trikuharri bat zela argi
gelditu zen eta aurreikusitako gainerako lanekin
(zundaketa bat ustezko hegoaldeko harlauza bilatze-
ko) ez jarraitzea erabaki genuen. Proiektuaren lehe-
nengo fasearen helburua monumentu megalitikoa
baieztatzea zenez, behin hori lortuta, lanak etetea
erabaki genuen, monumentua ikertzeko Gipuzkoako
Foru Aldundiko baimena lortzeko asmoz.

2019an, trikuharria ikertzeko baimena jaso ondo-
ren, egitura osoa garbitu genuen, eta egituraren
hego-ekialdeko zatia suntsituta zegoenez, jatorrizko
tumuluaren aztarnen bila industu genuen, goiko
geruza nahasiak kentzen.

Lan honekin batera hil-ganbara industu genuen,
maila desberdinak jaisten eta erregistratzen, ustezko
lurzoru baten aztarnak topatu arte. Nahiz eta dese-
ginda egon, ustezko lurzoru hori osatzen zuten har-
lauz batzuk aurkitu genituen.



Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: 1. azala.



Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: 2. azala.



Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: amaiera.

2020an egindako lanetan, eta monumentuaren ikerketa bukatzeko asmoz, 0,50 x 0,90 metroko luzera eta 0,30 metroko sakonera duen zundaketa bat egin genuen hil-ganbaran, aipatutako lurzoru horren azpian bertako lur naturala kokatzen dela baieztatzen.



Hil-ganbararen indusketa arkeologikoa: lur naturala.

Baina hil-ganbararen forma da guk identifikatu dugun gauza interesgarriena. Indusketa egin baino lehen, iparraldeko harlauza handia ekialderantz luzatzen zela ikusten zen (tamaina txikiko harriak harlauzaren ekialderantz lerrokatuak), eta lanak egin ondoren 3 metro baino gehiagoko luzera daukan galeria-hilobi bat dela argi utzi dugu.



Hil-ganbararen irudi orokorra.

Lan arkeologikoa bukatu ondoren, monumentuaren topografia egin zen eta indusitako hilobia berreskuratu zen.



Monumentuaren irudi orokorra.

Trikuharria suntsitua egon arren, indusketa lanak egiterakoan material arkeologiko interesgarriak aurkitu ditugu: suharrizko printza bat eta xafla baten zati bat 2018an, eta 2019an gezi punta bat, bi xafla eta beste baten zati bat.



Azaldutako gezi punta.

Putzuzar eta Igoi-Akolako Estazio Megalitikoa

Igoi mendian kokatzen den estazio megalitikoa 17 monumentuk osatzen dute gaur egun eta Donostiako, Errenteriako eta Hernaniko udalerrietan kokatzen dira. Monumentuen izenak honako hauek dira: Akolako Lepua I-II, Arritxieta, Bistarri, Igoingo Lepua I-II, Landarbaso I-VI, Langagorri, Putzuzar eta Sagastietako Lepua I-III (1).

Estazio megalitikoa Monumentu Multzo izendapez Kultura Ondasun gisa deklaratu zen ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuan (EHAA: 2003ko uztailaren 8a, 133. zenbakia). Dekretu horretan zehazten dira estazioa osatzen duten elementuak eta haien babes-erregimena.

Putzuzarreko trikuharriak multzo honetan kokatzen diren beste monumentu batzuen antzeko ezaugarri batzuk ditu, zehazki, Akolako Lepua izeneko egiturarenak. Akolako Lepua I industerakoan, 1950an, harlauzatxo mehez osaturiko maila bat identifikatu zuten hil-ganbaren barruan (2), guk indusitako

1.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: Gipuzkoako monumentu megalitikoak eta aztarnategien bilatzailea. <http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica-resultados?terminobusqueda&estacion%5B0%5D=Igoi-Akola&terminomunicipal&searchsubmit&pagina=1&lang=eu>

2.- ATAURI, T.; ELOSEGUI, J.; LABORDE, M.: "Exploración de tres dólmenes de la estación dolménica de Igoi-Akola (Guipúzcoa)". Munibe 3, 1951, p. 13.

monumentuan ikusitako aztarnak bezala. Beste alde batetik, Akolako Lepua Ilan Putzuzarreko hil-ganbararen ezaugarri antzekoak ikusten dira, hau da: ipar-ekialdeko harlauz handi bat, barrurantz kullunkatua, eta mendebaldeko harlauz txiki bat, biek hil-ganbaren ipar-mendebaldeko erpina osatzen dute. Hori bai, azken monumentu honek ez dirudi Putzuzarren aurkitutako galeria-hilobia izan duenik. Putzuzar kasu bakarra da Igoi-Akolan, bai bere arkitekturagatik, bai bere kokapenagatik, toki ez oso ikusgarri batean baitago. Agian horretarako erabiltzen ziren tokirik hoberenak okupatuta zeudelako jada edo ezezaguna egiten zaigun beste arrazoi batengatik.

Beste alde batetik, ezagunak izan arren, galeria hilobiak ez dira ohikoak Gipuzkoan, Jentillarrikoa da kasu ezagunena, 6 metro inguruko luzera duen hil-ganbara batekin (1).

Emaitzak eta azken oharrak

Putzuzarren aurkitutako monumentuak Gipuzkoan ezagunak baina ez-ohikoak diren arkitektura eta kokapena dauzka; maldan behera dagoen eta inguruko erliebean nabarmentzen ez den galeria-hilobi bat da.

Igoi-Akolako multzoa trikuharrien arteko artikulazio espaziala ikertzeko aukera bikaina da. Eremu honetan hainbeste trikuharri ezarri izanak nolabaiteko antolakuntza espazial eta kronologikoa jarraitu behar izan du eta hipotesi berriak planteatzeko aukerak zabaltzen zaizkigu.

Igoi-Akolan, trikuharriak eraiki eta erabili ziren bitartean giza okupaziorik bazen, orduan nekropoliaren eta bizilekuen arteko artikulazioa aldatu egingo zen hildakoen espazioa zabaltzen zenean bizilekuak ingurutik baztertuz. Dena den, mendi honetan tarte zabala gelditzen zaigu oraindik aztertu gabe, eta antolaketaren arrazoiak zein izan den baieztatu behar da.

Antolaketa espazialari dagokionez, inguru osoa miatzea komenigarria izango litzateke, orain arte ikusitako banaketaren arrazoiak zein den argitu arte.

Aldi berean, trikuharrien datak lortu behar dira -eta aukerarik izanez gero, aire zabaleko okupazioenak ere- analisi sakon bat egin ahal izateko.

Bukatzeko, trikuharriak multzoetan aurkitzen direnez, eta beren erabilpen luzea kontuan hartuta, nekropoli hauen esanahi historikoaz gogoeta bat egin behar da. Hain zuzen ere, denbora luzez erabili diren hilobi-kolektiboak izanik, leku honetan hainbeste monumentu egoteak hiru hipotesi planteatzeko ditu:

1. Gizatalde bakarrak erabiltzen bazuen nekropolia, talde honen populazioa uste baino handiagoa dela. Taldearen beharren arabera, trikuharri berriak eraikiko lirateke denboran zehar, eta hauen artean antolaketa kronologikoa egon behar du.
2. Hileta-eremu berdina gizatalde ezberdinek erabiltzen dutela. Espazio partekatua erabiltzeko arau bat egon behar da, eta monumentuak garaikideak izan behar dira.
3. Monumentuen erabilpena ez zela izan uste dugun bezain luzea (denboran) edo zabala (hobiratu gutxiago bakoitzean). Kasu honetan, trikuharrien ostilamenduetan nabarmendu beharko lirateke ezberdintasun tipologikoak eta kronologikoak.

Momentuz, ez dugu ez monumentuen dataziorik, ezta hilobien ostilamendurik ere, hipotesi hauek egiaztatzeko.

Horregatik, gure ikerketak jarraitzeko asmoa daukagu.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Alfredo Moraza, Iñaki San, Izaro Quevedo, Txuma Costas eta Ereñotzu eta Hernaniko jendea, besteak beste.

1.- APELLANIZ, J. M.: Corpus de materiales de las culturas prehistóricas con cerámica de la población de cavernas del País Vasco Meridional. Munibe, Supl. 1, 1973, pp. 249-250.